



## Bertsolari Txapelketa Nagusia 2022: Finala

Goizko 9:00etan irekiko dira atea. Bertsozale Elkarteak garraio publikoa erabiltzeko gomendioa egiten du, eta hala ez bada, autoa partekatzea. Une oro egin kasu antolatzaileen jarraibideei.

Irailaren 24an hasi eta hamahiru saioen ostean, iritsi da Bertsolari Txapelketa Nagusia finalera: abenduaren 18an izango da Iruñeko Nafarroa Arenan lehen aldiz.

Oholtzan, Aitor Mendiluze, Alaia Martin, Amets Arzallus, Beñat Gaztelumendi, Joanes Illarregi, Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal eta Sustrai Colina bertsolariak. Saioa aurkezten eta gai ematen ariko dira, Alaitz Rekondo, Aritz Bidegain, Idoia Anzorandia eta Ion Zaldúa.

Oholtzan gertatzen ari denari adi, epaileak: Ainhoa Sarasua, Aitor Jimenez, Amaia Otxotorena, Eneko Bidegain, Eneritz Azkue, Joseba Beltza, Joseba Santxo, Miriam Juaristi eta Nerea Bruño. Eta, noski, 13.000 bertsozale, bertsoaz gozatzeko irrikaz, eta 350 kide baino gehiagoko taldea, dena ondo joan dadin lanerako prestu.

### Irakurri arretaz jarraibide eta oharrrak

9:00etan irekiko dira Nafarroa Arenako atea. 11:00etan hasiko da goizeko saioa, eta 14:30ak aldera amaitu. Ondoren, berriro ere 16:00etan irekiko dira atea; 17:00etan hasitako arratsaldeko saioa, 20:30ak aldera amaituko da.

Bertsozale Elkarteak garraio publikoa erabiltzeko gomendioa egiten dizu edota elkarteak berak nahiz bestelako enkimenez antolatutako autobusetan. Horrela, besteak beste, pilaketak saihestuko dira. Hala ere, autoa baliatzea hautua eginez gero, ibilgailua partekatzea gomendatzen dizugu, eta elkarteak zabaldu dituen ibilbide gomendioak jarraitzea.

Gogoratu eremu bakoitzak –harmaila, pista, errebotea- bere sarbidea duela, eta ezingo dela batetik bestera pasa.

Halaber, aretoan ezingo da objektu puntadunik sartu, ezta beirarik, latarik, alkoholik edota sua eragin dezakeen materialik ere. Objektu horiek ekartzekotan, bazkaltzeko orduan behar dituzulako, Sadar estadioan jarriko den kontsignan gorde beharko dira, 8:00etatik 11:30era bitarte eta goizeko saioa amaitutakoan jaso.

Sadar estadioan estalpean etxetik eramandakoa bazkaltzeko aukera izango da; NUPeko instalazioetan, aldiz, Zubillaga catering enpresak eskainitako menua – haragiduna edo beganoa-. Azken horretarako txartelak salgai dituzu, abenduaren 16ra arte, [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian.

Ohar gehiago eta xehetasunak [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian dituzu.

Gozatu egunaz, bertsozale!



Egon daitezkeen eguneratzen berri izateko, eguna hurbildu ahala begiratu arretaz oharrrak [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) webgunean. //XDZ- Gari Garaialde



**SARAI ROBLES VITAS**  
Elizondo, 2022-10-21  
X. Mariano Izeta Bertso Sariketako irabazlearen agurra

Doinua: *Zer buruzbide bihotz gabe*

Nik ez dut inoiz deus irabazten baina gaur hau nuen meta bertso eskolako orduak bueltan etortzen dira noizbehinka. Gora Elkarte, bertso lagunak eta Mariano Izeta! Lagunartean zein ederra den bertsoen elkarrizketa maite zaituztet ta maite dut hau esan behar da tarteka bihotzak hori oso aspaldi erabaki zuen eta.

# Nazioarteko adituak finalean izango dira aurten ere

**Abenduaren 18an izango da Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala, eta bertako zaleez gain, nazioarteko ikertzaileek eta inprobisatzaileek ere jarraituko dute finala bertatik bertara.**

Urteetan eraiki ditugun harremanen ondorioz, nazioarteko adituak izango dira abenduaren 18an Iruñean, Nafarroa Arenan jokatu den Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean. Ahozko kantu inprobisatuaren alorrean ekitaldi garrantzitsua da Bertsolari Txapelketa Nagusia, eta bereziki finalak ikusmin handia sortzen du hemen zein nazioartean.

Munduan badira bertsolaritzaren kasuan bezala hitzaren jolasa maite duten hainbat kantu inprobisatu, eta horiek ordezkaten dituzten zenbait elkartetako kideak izango dira gure artean: Kataluniako Cor de Carxofa, Glosadores de Mallorca, Galiziako Proxecto Educativo Regueifesta, Madeirako Xarabanda eta Sardiniako cantadorien lana sustatzen duen Cordinamentu Artes Musicales et Poëticas de Tradizioni Orali de Sardigna elkarreetako kideak.

Horietako zenbait gonbidatu ezagunak ditugu jada gurean; esate baterako, 2016ko *Europa bat-batean* egitasmoan kantuan entzun genuen Maribel Servera glosadorea edota urteetan bertsolarien eta Sardiniako cantadorien zubi-lanak egiteko garaian paper garrantzitsua izan duen eta aurreko zenbait finaletan ere egon den Paulu Zedda. Halaber, azpimarratzekoa da Galiziako regueifaren eta bertsolaritzaren artean sortutako harremana, Bizkaiko Bertsozale Elkartetik eta Galiziako Proxecto Educativo Regueifesta ekimenetik bultzatzen den eta bi lurraldeetako ikastetxeetan garatzen den Regueibertso programari esker; Séchu Sende izango da Galiziako gonbidatuetako bat.

## Ikertzaileak ere bai

Kantu inprobisatuan aditu zen John Miles Foley ikertzaileak Bertsolari ikus-entzunezkoan ere adierazi zuen bertsolaritzaren fenomenoaren bakantasuna: "Inoiz ez dut horrelakorik ikusi. 14.000 lagun horrelako emanaldi batean elkartuta, bertan egon behar dutenaren sentimenduak batuta, izan heldu, gazte, gizonetzko edo emakume". Ikertzaileen artean ere ikusmina sortzen du Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finalak.

Hala gurean izango dira aurten Korsikako kantu inprobisatua aztergai duen Giovanni Ragni, Brasilgo inprobisatzailea eta doktoregaia den Edmilson Ferreira, puntu kubatarrean aditu den Amaya Carricaburu edota bertsolaritzarekiko interes berezia duten Oviedoko Unibertsitateko Jesus Fernandez antropologoa eta Columbiako Unibertsitateko Rafael Yuste neurologoa, besteak beste.

Gainera, haiekin izango dira Nevadako Unibertsitateko Renoko Euskal Ikerguneko ordezkariak eta bertako unibertsitateko ikertzaileak, bertsolaritzarekin eta Bertsozale Elkartearekin harremana dutenak: Mondragon Unibertsitateko Jon Sarasua bertsolari eta ikertzailea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Alfredo Asiain ikertzailea edota UPV/EHUKo Mikel Laboa Katedrako zuzendaria den eta bertsolaritza generotik ikertu izan duen Jone Miren Hernandez, adibidez.



2017an ere talde handia osatu zen bertako eta nazioarteko adituekin. // XDZ

# Hauek izango dira 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko sari emaileak

Bertsogintzako kide esanguratsuez gainera, euskalgintzan eta kulturagintzan bidelagun ditugun lagunek emango dituzte sariak abenduaren 18an.

Azaroaren erdialdean iragarri genuen Iñaki Muruak jarriko ziola txapela 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko irabazleari. Bertsolaria eta urte luzez Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakaria izandakoa, bertsolarietako eragile handia da Muruak.

Txapela ez da, ordea, finalean banatuko den sari bakarra eta ezta Muruak sari emaile bakarra ere. Oholtza gainean izango diren zortzi bertsolarietako egingo zaie aitortza finalean, eta horretarako Bertsozale Elkarteak jardun eremu dituen lagunen eskutik jasoko dute saria.

Sari emaileek bertsolarietako ez ezik, euskalgintza eta kulturagintza ordezkatzen dute, baita bertsolarietako munduan zehar kantu inprobisatuaren eremuan utzi duen lorratza ere.

Irantzu Idoate Funosasek (Hazparne, 2005) emango dio saria bigarren sailkatuari. Bertsolaria, bera da 2022ko Eskolarteko Bertsolari Txapelduna.

Sagrario Aleman Astitzek (Etxaleku, 1952) banatuko ditu hirugarren eta seigarren sariak. Urte luzez izan da Iruñeko Arturo Campion euskaltegiako zuzendaria, eta

Nafarroako euskalduntze mugimenduko erreferente nagusietako bat da Aleman.

Edurne Azkarate Sobrino (Oion, 1993) aktoreak ere hartuko du parte sari banaketan. 2017ko *Aulki Jokoa* saioko aurkezlea izan zen Azkarate; 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiari buruzko programa. Besteak beste, *Zaldi Urdina* antzezlanean ere aritua, eRRe Lanku Kultur Zerbitzuen emanaldiko zuzendaria da, eta aurkeztu berri den *Irati* filmeko aktore nagusietako bat ere bada Azkarate. Bi sari emango ditu.

Beste kantu inprobisatu batzuk ere badira munduan, eta horiek sustatzeko lanetan ari diren kideekin harremanetan gaude bertsolarietako mugimendukook. Horiek guztiak ordezkatuko dituenik ere izango da oholtza gainean saria banatzeko. Paulu Zedda (Sinnai, 1964) Sardinia kantada bat-bateko kantuaren inprobisatzailea da; cantadorea. Bertsozale Elkarteak harreman luzea du Sardinia inprobisatzaileekin, hein handi batean Zeddari esker. Maiz joan izan dira bertsolariak hara, eta beste horrenbeste etorri izan dira sardinia inprobisatzaileak hona. Bosgarren eta zortzigarren sariak banatzeaz arduratuko da Zedda.

## Eta zein sari emango dituzte?

Azken urteetan 2019an zendutako Ana Zaldia billabonatarrek brodatutako txapela jantzi izan zaio txapeldunari; aurrean, Itziar Alduntzin donostiarrak hartu du txapeldunaren garaikurra osatzeko ardura. Gainera, Mikel Lertxundi berriatuarraren eskultura bat ere jasoko du lehenak.

Lau txapelketetako zikloa bete zuen 2017an bere garaian Bertsozale Elkarteko eragile zen Koldo Tapiaren ekimenez proposatutako eta Xabier Lakak egindako *Eskutik Eskura* artelanak. Garaikurrak jada azken lau txapelketetan bigarren egin dutenen izenak ditu alde banatan. Hala, aurtengoan beste artelan bat jasoko du txapeldunordeak: Iker Valle andoaindarraren brontzezko eskultura bat.

Hirugarren postutik zortzigarrenera bitarteko bertsolarietako margolanak jasoko dituzte: Jose Luis Zumeta, Dora Salazar, Carmelo Ortiz de Elgea, Marta Cardenas, Mariano Arsuaga eta Olatz Irigarai sortzaileen artelanak, hain zuzen.



2017ko sari banaketako momentua: Igor Elortza bertsolaria eta Maribel Servera glosadorea. //XDZ-Alberto Eloseg



## Puntua jarrita

MAIDE GARMENDIA JAUREGI

Txapelketa Nagusia azken bost urte hauetan plazan eta gizartean gertatu eta aldatu denaren isla da. Zutabetxo hau idazten ari naizenean dagoeneko badakigu nork kantatuko duen aurten finalean; txapelketa osoaren erradiografia bat ere egin dezakegu. Batez ere, aipatzeko modukoa da bertsolari belaunaldi berrien presentzia: tokia hartzen ari dira, eta tokia hartu dute, aurten baita finalean ere. Horrekin batera, egungo gazteen kezka, gauzak ulertzeko moduak, bizitzekoak, pentsatzekoak... eta hau, txapelketan ere agian bai, baina orokorrean, plazan ari da gertatzen.

Hala ere, belaunaldikideez, eta hauek dakarkitenaz galdetu zidan lgaurik, eta kasu batzuetan adinez nahiko gertu dugun jendea bada ere, zu eta bion belaunaldia txapelketan ordezkari handiegirik gabekoa da oraingoz, nahiz eta plazan bere lekua egiten ari dena izan.

Bertso saio formatu berriak. Azken urteetan ohiko egituratik ateratzen diren saioak, sariketak... ari dira jaiotzen. Bertsolari gazteak, kasu gehienetan eta salbuespenak salbuespen, instituzionalizatutako bertso plaza saretik kanpo geratzen dira. Hala, haien posizionamendu politikoagatik, gizarteko mugimendu baten edo besteren gerizpean antolatzen diren saioetan hartzen dute lekua.

Ikusi beharko da ea nola gorpuztuko den egoera hori datozen urteetan, plazan eta txapelketetan, gaur arte ezagutu dugun iritzi edo mundu ulerkeraren hegemoniak mugak jotzean. Ea nola eraikiko diren diskurtsoak, zeri kantatuko zaion, zergatik, nondik...


Behin hau esanda, Zaldibiako Hodei Munduateri jarriko diot hurrengo puntua. Txiki-txikiak ginela hasi eta gaur arte bertso-eskolako kide, bertsokide eta adiskide dudanari. Badaude larunbat gauetako bertsolariak, behin ere plazara atera gabekoak, Txapelketa Nagusiko finalean kantatuko dutenak... Zerk egiten du bat bertsolari?

# Koplak

## Bertsu Xurla, gazteen arteko txapelketa

Bertsularien Lagunak Elkartearen ekimenez antolatuko da lehen aldiz Bertsu Xurla. Euskal Herri osoko 16 eta 22 urte bitarteko 18 bertsulari gaztek kantatuko dute bertso afari formatuan. Lau saio izango dira urtarrileko ostiraletan: Atharratzen, Lekornen, Izpegin eta finala Pausun izango da urtarrilaren 27an. Gazteei plazak eskaintzea eta elkarren arteko ezagutza bultzatzea ditu helburu nagusi ekimen honek.

# Poto-Finixa



## Bertso Eguneko sarrerak eta berri gehiago laster

Aurreko BertsoZalea berripaperean aipatu bezala, urtarrilaren 28an egingo dugu Bertso Eguna Azpeitian. Eguerdian bertso bazkariak izango dira eta gauean izango da ekitaldi nagusia, afalostean. Bertsolari Txapelketa Nagusia amaitutakoan, urtea bukatu baino lehen, emango ditugu xehetasun gehiago eta jarriko ditugu sarrerak salgai.

PUBLIZITATEA